

AZAROA NOVIEMBRE NOVEMBRE

HUELGA FEMINISTA GENERAL
GRÈVE FÉMINISTE GÉNÉRALE

GREBA FEMINISTA OROKORRA

Zaintza eskubide kolektiboaren alde.
A favor de un derecho colectivo al cuidado.
En faveur du droit collectif au soin et à l'accompagnement.

HERRI AKORDIOA ACUERDO SOCIAL

Zaintzen egungo antolamendu soziala eraldatu nahi dugu:

>Premiei erantzunez, egun prekarioenen eta kolapsatuen dauden egoerei aurre eginez.

>Epe luzera begiraturaz, sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala gaingaitu nahiz bizitzak erdigunean jarriko dituen sistema sozial bat imajinatuz eta definituz.

Euskal zaintza sistema publiko eta komunitarioa:

>Zaintza lanak demokratizatu:

Zaintzen sistema publiko bat behar dugu. Sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak guztion eskura egon behar dira, finantzaketa eta kalitatea bermatuz. Merkantilizaziorik gabeko sistema publikoa.

>Zaintza lanak erantzukizun kolektibo gisa:

Bizitza komunaren logikan eraikitzearen alde. Tokian toki sustraitutakoa, udalgintzaren bitartez publikoarekin elkarlotuz.

Zaintza sistema publikoaren alde

Zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea.

Zaintza zerbitzuen pribatizazioarekin amaitzea.

Zaintza sistema publikoa indartzea eta garatzea.

Etxez etxeko zerbitzua indartzea eta garatzea.

Zaintza lanak transbersalki lantzea: hezkuntzan, osasungintzan eta lan eremuan, besteak beste.

Familia nuklearretik at, zaintzeko baimenak zabaltzea eta handitzea: loturagramak

Bizitza duinen alde

Lan jarduna murriztu soldata murriztu gabe: Zaintzeko denborak bermatzea.

Gizonak interpelatzea, ez zaintzearen pribilegioari uko egin diezaioten eta zaintza lanetan ardura har dezaten.

Atzerriartasun legea bertan behera uztea, eta bitartean, zaintza langile guztiak erregularizatzea.

Erroldatzeko eskubidea guztiontzat eskuragarri izatea.

Etxebizitza eskubidea bermatzea: merkatuan esku hartzea.

Agroekologia babestea eta sustatzea.

Denontzako pentsio duinak ezartzea: 1080 eurokoak gutxienez.

Zaintza langileen baldintza duinen alde

Etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraztea.

Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartzea: Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena bere osotasunean berrestea.

Zaintza sektoreko langileen lan baldintzak hobetzea.

Etxeko langileei gutxieneko soldatatik gorako lansaria ezartzea.

Zaintzaileei laguntzeko sareak sortzea.